

Prentsa oharra

Nota de prensa



210 elementu berrik osatuko dute PEPPUC ondarea babesteko plan berezia

Udalbatzarrak behin betiko onarpena emango dio martxoaren 25ean Eraikitako Ondarea Babesteko Plan Bereziaren (PEPPUC delakoa) katalogoaren aldaketari, eta ondorioz, bertan 1300 elementu jasoko dira

Eraikitako Hiri Ondarea Babesteko Plan Bereziak (PEPPUC delakoa) 1310 elementu jasoko ditu, behin udalbatzarrak 210 elementu berri jasotzeko aldaketa behin betiko onarpena emanda. Eta onarpen hori martxoaren 25eko bilkuran emango da. Horretarako, Donostiako Udalak katalogoaren berraztertzea egin du azken urte eta erdian.

Hirigintza zinegotzi Nekane Arzallusek eta Hirigintza departamentuko zuzendari Jon Chavarrik azaldu dute, erakusketa publikoak iraun duen bitartean 30 alegazio jaso direrla. Gogoan izan, alegazioak aurkezteko epea luzatu behar izan zela COVID19a dela-eta izandako konfinamenduaren ondorioz.

Alegazio horiek aurkeztu dituzte, gehienbat, euren etxea katalogatuta ikusi duten hainbat pertsonak, hiriko hainbat ondarearen babesaren elkarteak, Gipuzkoako Arkitektoen Elkargoak edo Gipuzkoako Foru Aldundia bezalako beste hainbat erakundek.

Katalogatutako elementuak

PEPPUC berrituak eraikin eta elementu berriak katalogatzeko jarraitutako irizpideak zehazten ditu. Eta irizpide horiek lotura dute etxeen paisai-balioa eta interes kolektiboarekin.

Hortaz, Planak 210 elementu berri jasotzen ditu, eta horietatik 150 etxeak dira, batez ere XX.mendearen lehen hamarkadetan eraikitako etxeak. Eta etxe horiek dentsitate gutxiko hainbat eremutan daude, besteak beste, Ategorrieta-Ulía, Intxaurren, Aldapeta, Baenako Dukea, Egiako Galtzada, Itsasargiaren Pasealekua edo Fedearen Pasealekuaren eremutan. Gainera, Heriz Pasealekuko 28 etxe sartu dira, baita Loiolako Hiri Lorategiaren etxe-multzoa.

Era berean, 50 bizitegi-eraikin inguru katalogatu dira, batez ere, Gros auzoan, baina baita Erdialdean eta Ondarretan ere. Eta gainera, hainbat motatako 10 eraikin berezi sartu dira, besteak beste, hainbat komentu – Elizbarrutiko Seminarioa, Salestarrak, Santo Domingo Komentu – eta beste hainbat eraikin edo gunee berezi – Deusto EUTG gunea, Antiguako merkatu zaharra, San Ignazio Klinika edo Tenis inguruko paisai-multzoa –.

Gainera, 15 bizitegi-eraikinen babes maila handituko da, eta beraz, C mailan egotetik B mailara pasako dira.

Babes mailak

Prentsa oharra

Nota de prensa

Horrenbestez, PEPPUC delakoak A mailan sartuko ditu Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Kultur Ondasun izendatutako Alde Zaharreko eta Kaiko Monumentu Multzoa, Villa Aldama, Uliako Udal Ur Biltegiak eta Haizearen Orrazia.

B babes-mailari dagokionez, 15 elementu berri sartu dira PEPPUC delakoan, hain zuzen ere, lehen C maila zuten elementuak, besteak beste, honakoak: Equitativa-ren eraikina, Getaria 2, Prim kaleko hainbat eraikin eta Kursaal Jauregia.

C mailan, berriz, 22 eraikin berri sartu dira, besteak beste, 9 etxe, Moneoren Urumea eraikina, Seminarioa, Mundaizeko EUTGren multzoa, Tennis inguruko multzoa, Renfe-ren geltokia edo Salestarren eta Domingotarren komentuak.

Azkenik, 200 elementuri D babes-maila eman zaie. Bereziki ingurumen- edo paisai-balioagatik nabarmentzen diren etxeak, edo Groseko ensantxean dauden hainbat bizitegi-eraikin.

Ondarearen Aholku Batzardea

PEPPUC delakoaren aldaketa-prozesuaren beste berrietako bat da, katalogoa aldatu ahal izango dela modu aurreratu batean, elementu berriak sartu edo atera ahal izateko; betiere, udal ordenantzak ezartzen duen tokiko araudian ezarritako prozedura jarraituta, eta beti, dagokion informazio publikoa emanda eta gaian eskumena duten Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren departamentuen txostenak izanda.

Aukera honek eskatuko du araututako Udal Ondarearen Aholku Batzardea sortzea. Eta aholku batzardearen lana izango da Udalari informazioa eta aholku ematea Hirigintza Ordarearen gainean. Batzarde hau organo partehartzailea izango da eta segidakoek osatuko dute: kualifikazio handiko pertsonala – dagokion titulua dutenak eta ondare arkitektoniko alorrean esperientzia dutenak –, baita beste hainbat alorretako ordezkariak ere, esaterako, Arkitektura eta Historiako unibertsitate irakasleak, arkitekturako profesionalen kolektibo edo elkargoak, eta Hiriko Ondarearekin lotura duten elkarteak.

Katalogatutako elementuen birgaitze energetikoa

Gainera, Eraikitako Hiri Ondarea Babesteko Plan Bereziak artikulua berria izango du, B, C eta D mailako etxe-aurrealdetako birgaitze energetikoa arautzeko. Hortaz, baimena emango zaie kanpoaldean isolamendu sistema termikoak erabiltzeko harrizkoak ez diren etxeei, eta beti, aldez aurretik eskatuta eta eraikinaren balio historiko, arkitektoniko eta konstruktiboaren txostena aurkeztuta, egingo den obraren azterketa teknikoa eginda, eta PEPPUC delakoa betetzeaz arduratuko den arkitektuaren aldeko txostena izanda.

Donostia, 2021ko martxoak 5